



2007ko apirilak 24 asteartea
79 Zenbakia

Martes 24 de abril de 2007
Número 79

LABURPENA — SUMARIO

	<u>Orrialdea</u>		<u>Página</u>	
3	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak.	11.121	3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....	11.121
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	11.128	4 Administración del T.H. de Gipuzkoa.....	11.128
6	Autonomia Erkidegoko Administrazioa.....	11.153	6 Administración de la Comunidad Autónoma	11.153
7	Udal Administrazioa.....	11.184	7 Administración Municipal	11.184
8	Justizia Administrazioa.....	11.290	8 Administración de Justicia	11.290

3

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

3

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Batzar Nagusietan herritarren arau ekimena arautzeko apirilaren 10eko, 7/2007 FORU ARAUA.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Gipuzkoako Batzar Nagusietan herritarren arau ekimena arautzeko apirilaren 10eko, 7/2007 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2007ko apirilaren 10a.—Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda, diputatu nagusia.

(3193)

(4267)

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 7/2007, de 10 de abril, reguladora de la iniciativa normativa popular ante las Juntas Generales de Gipuzkoa.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 7/2007, de 10 de abril, reguladora de la iniciativa normativa popular ante las Juntas Generales de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 10 de abril de 2007.—El diputado general, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

(3193)

(4267)

HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoaren bidez onartu zenak, 37. artikuluko 3. ataleko a) letran, eskumen eksklusiboa ematen die lurralde historikoei «beren erakundeen antolaketa, erregimen eta funtzionamendua» erabakitzeo dagokien lurraldeetan.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, aurreko paragrafoan aipatutako eskumenak garatze aldera, Batzar Nagusien Jarduerarako Araudiari buruzko 1985eko ekainaren 25eko 5/1985 Foru Araua egin eta onartu zuten. Foru arau horrek, 88. artikuluan, 3. atalean, herritarrei aukera ematen die araugintza erkidean herritarren ekimenaren bitartez parte hartzeko.

Horretarako, konbentziturak gaudelarik gai publikoetan Gipuzkoako herritarren partaidetza oinarritzeko elementua dela demokraziaren sistema politikoan, Batzar Nagusiek 1986ko uztailaren 21eko 9/1986 Foru Araua onartu zuten, Batzar Nagusietan herritarren ekimena arautzen duena, gure erakunde ordezkaritzazko demokrazia horrela areagotuz.

Foru Arau horren hitzaurrean esaten zen moduan, «Asmoa ez da arau ekimena erabiliz hiritarren jarduera alderdi politikoan jarduerari kontrajartzea, gure ustez biak egon baitaitezke batera sistema demokratiko baten barruan. Izan ere, herri borondatearen adierazpen organo gisa eta eskuartze politikoaren oinarritzeko tresna gisa alderdi politikoaren zeregin instituzionala errespetatuz, herritarren bizitzan eragina duten arauen proposamenen subiranotasunaren titularraren eskuartze zuzena areagotzea da asmoa, horrela betez herritarrek benetan sentitzen dituzten beharrei erantzuten egon daitekeen hutsunea, behar horiek, arrazoi ezberdinak direla medio, ez dutelako oihartzunik Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi politikoan baitan.

Arau ekimena erabiltzeko bide zabal, erraz eta bermeduna eskaini nahi diegu herritarrei, ahalik eta erraztasun handienez eta edozein erakundek berekin daraman zuzentasunez erabil dezaten, zeren erakunde horren erabakiak nahitaez baitagozkie herritar guztiei».

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 9/1986 Foru Araua onartu zenetik denbora asko igaro zela eta, 2006ko apirilaren 27an arau besteko proposamen bat onartu zuten. Foru Aldundiari eskatu zioten bidal diezaiola Ganberari 9/1986 Foru Araua (uztailaren 21ekoa, Batzar Nagusietan herritarren ekimena arautzen zuena) aldatuko zuten foru arauaren proiektua. Proiektu horrek, gainera, herritarren parte-hartzerako instituzioari buruzko hainbat aldaketa eta egokitzapen jaso behar zituen; horien ondorioz, beharrezkoa zen foru arauaren proposamen berri bat egitea, Gipuzkoako herritarrek instituzio hori baliatu eta erabiltzearen aldeko hobekuntzak txertatuta izango zituen.

Prozedura martxan jartzeko ezinbesteko da testu artikulatua aurkeztea, zioen azalpena eramango duena, eta hori batzorde sustatzaile batek aurkeztu behar du. Alferrikako gastu eta lanak saiheste aldera, Batzar Nagusien Mahaiak testuaren onargarritasun azterketa egingo du, horrela bermatuta gero dadin foru arauaren proposamena aurrera eramateko aukera. Erabaki horren aurka, bidegabekeriarik egon ez dadin, Batzorde Sustatzaileak babes errekurtsioa jar dezake Auzitegi Konstituzionalan. Horretarako, ez onartzeko arrazoiak kontuan hartu dira, horien artean, foru arau baten proiektu edo proposamenari dagokion arrazoi orokorrez eta Konstituzioan aurreikusitakoez

PREAMBULO

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, otorga a los Territorios Históricos en su artículo 37, apartado 3, letra a), la competencia exclusiva dentro de sus respectivos territorios de la «Organización, régimen y funcionamiento de sus propias Instituciones».

Las Juntas Generales de Gipuzkoa, en el desarrollo de las competencias señaladas en el párrafo anterior, elaboraron y aprobaron la Norma Foral 5/1985, de 25 de junio, de Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Gipuzkoa, que, en su artículo 88, apartado 3, abrió un cauce para que las ciudadanas y ciudadanos guipuzcoanos pudieran tomar parte directamente en el procedimiento normativo común en uso de la iniciativa popular.

A tal efecto, convencidos de que la intervención de las ciudadanas y ciudadanos de Gipuzkoa en los asuntos públicos es elemento esencial del sistema político democrático, las Juntas Generales aprobaron la Norma Foral 9/1986, de 21 de julio, reguladora de la iniciativa popular ante las mismas, ampliando de esta forma el carácter de democracia representativa de nuestras Instituciones.

Como se señalaba en el Preámbulo de la citada Norma Foral, «No se trata de contraponer la actuación de los ciudadanos en uso de la iniciativa normativa popular a la actuación de los partidos políticos, ya que entendemos que ambos tienen perfecta cabida en el marco de un sistema democrático. Se trata de, respetando el papel institucional de los partidos políticos, como órganos de manifestación de la voluntad popular e instrumentos fundamentales de la participación política, intensificar la directa participación del titular de la soberanía en la Proposición de Normas que afectan a la vida de los ciudadanos, posibilitando que se llene un posible vacío de la existencia de necesidades ampliamente sentidas por los ciudadanos, pero que por razones diversas no encuentran eco en las formaciones políticas con representación en las Juntas Generales.

Queremos ofrecer una vía amplia, sencilla y con garantías para la utilización de la iniciativa normativa popular, de manera que los ciudadanos puedan acceder a ella con la mayor facilidad posible, pero con el rigor que conlleva el funcionamiento de cualquier Institución cuyas decisiones afectan de forma obligada a todos los ciudadanos».

Las Juntas Generales de Gipuzkoa, dado el tiempo transcurrido desde la aprobación de la citada Norma Foral 9/1986, aprobaron el 27 de abril de 2006 una Proposición No de Norma por la que se instaba a la Diputación Foral a que en el plazo de seis meses remitiera a la Cámara un Proyecto de Norma Foral de modificación de la Norma Foral 9/1986, de 21 de julio, reguladora de la Iniciativa Normativa Popular ante las Juntas Generales de Gipuzkoa, en que se incluyesen diversas modificaciones y adecuaciones de la institución de la participación popular, que motivan la necesidad de formular una nueva Norma Foral que, además, incorpore mejoras que favorezcan el acceso y uso de institución por las ciudadanas y ciudadanos guipuzcoanos.

La puesta en marcha del procedimiento exige la presentación de un texto articulado precedido de una exposición de motivos que debe ser presentado por una Comisión Promotora. Con el fin de evitar gastos y esfuerzos inútiles, se establece un examen de admisibilidad del texto a cargo de la Mesa de las Juntas Generales, asegurando de esta forma, la posibilidad de seguir adelante con la proposición de norma foral, contra cuya decisión, como garantía para evitar posibles arbitrariedades, la Comisión Promotora podrá entablar recurso de amparo ante el Tribunal Constitucional. A tal efecto se contemplan las causas de inadmisibilidad, entre las que se recogen, además de las genera-

gain, ondoko hauek daude: Erabat ezberdin eta beren artean homogeneotasunik gabeko gaiei buruzko proposamena izatea, zuzenketa tramitean edo aurreratuago dagoen arau ekimen baten gai berdinari buruzko foru arauaren proiektua izatea, edota proposamena aurretik egotea Batzar Nagusietan edo Batzar Nagusietan agintealdi horretan aurkeztuta dagoen beste baten eduki berdina edo funtsean antzekoa duen beste baten erreprodukzioa izatea ekimena.

Foru arau honetako 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako gaien eta prozeduraren barruan, foru arau proposamena onartu ondoren, horretarako behar diren 10.000 sinadura biltzeko prozedurari ekingo zaio. Sinadura bilketa hori horretarako agiri egokietan egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialetako edozeinetan. Halaber, sinadurak bide elektronikoaren bidez ere bildu ahal izango dira, betiere herritarren arau ekimena izenpetzen dutenen benetako borondatea bermatzen bada.

Sinadurak jasotzeko epea lau hilabetetik sei hilabetera luzatzen da, beste hilabete batez luza daitekeena, baldin eta Batzar Nagusietako Mahaiak hori egiteko ezinbesteko kausaren bat ikusten badu. Sinadurak biltzeko prozeduraren erregularitasun bermea Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzararak ematen du, antzekoak direlako hauteskunde prozesuak eta sinadura bildu eta zenbatzeko prozesuak eta organo hori iraunkorra delako.

Eskatzen den sinadura kopurua bildu ondoren, tramitazio parlamentarioa hasiko da Batzar Nagusien Arautegiari jarraituz, tramite hori egiteko foru arau honek aukera ematen diolarik Batzorde Sustatzaileari pertsona bat izendatzeko, foru arauaren proposamena batzordearen ordezkari defenda dezan. Aurreikusten da, era berean, Batzar Nagusiak desegiten badira ere, ekimenak aurrera jarraituko duela, eta ez dela beharrezkoa izango, inolaz ere, berriro aurkeztea gutxieneko sinadura kopurua bildu izanaren ziurtagiririk.

Azkenik, egin diren gastuen ordaina ere azaltzen da, betiere sinadura kopurua biltzen bada tramitazioak aurrera egin dezan, eta beharrezko zuhurtasun guztiak ere aurreikusten dira Foru Aldundiak gastu obligazioak hurrengo ekitaldiko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan sar ditzan. Horrela saihestu nahi da herritarrek bizitza publikoan zuzenean parte hartzeko era bat erabiltzen dutenean, ez dadila izan gastuekari haientzat. Azkenik, ezartzen da Foru Aldundiak sinadura elektronikoa erabiltzeko eman beharrek jarraibideak eman behar dituela.

1. artikulua. Gaia.

2006ko uztailaren 2an onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusien Arautegiko 116. artikuluko 1. zenbakiko 3. atalean aurreikusten den herritarren arau ekimena gipuzkoar herritarrek erabil dezakete, adinez nagusiak izan eta Hauteskunde Erroldan izena emanda daudenak badira, Foru Arau honetan aurreikusitakoari jarraituz.

2. artikulua. Herritarren arau ekimenak hartu ezin dituen gaiak.

Herritarren arau ekimenaz kanpo geratzen dira ondorengo gai hauek:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arau eskumenetik kanpoko gaiak direnak.
- b) Zerga alorrekoak.
- c) Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrek egin, aztertu, zuzendu eta onartzeko direnak.

les de todo proyecto o proposición de norma foral y las previstas constitucionalmente, el hecho de que la proposición verse sobre materias manifiestamente distintas y carentes de homogeneidad entre sí, la previa existencia en Juntas Generales de un proyecto o proposición de norma foral que verse sobre el mismo objeto de la iniciativa normativa que esté en trámite de enmienda u otro más avanzado, o que la iniciativa sea reproducción de otra de contenido igual o substancialmente equivalente, presentada durante el mandato en curso en las Juntas Generales.

Una vez admitida la proposición de norma foral, que está limitada por las materias y procedimiento previstos en los artículos 2 y 3 de la presente Norma Foral, se inicia el procedimiento de la recogida de las 10.000 firmas exigidas, que se realizará en los correspondientes pliegos que deberán estar escritos en cualquiera de las dos lenguas cooficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Del mismo modo, se podrán recoger firmas por vía electrónica siempre que se garantice la voluntad auténtica de las ciudadanas y ciudadanos que suscriben la iniciativa normativa popular.

El plazo para la recogida de firmas se amplía de cuatro a seis meses prorrogable por otro mes más cuando concurra una causa mayor apreciada por la Mesa de las Juntas Generales. La garantía de la regularidad del procedimiento de recogida de firmas se encomienda a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, debido a la relativa similitud entre el proceso electoral y el de recogida de firmas y cómputo de las mismas y al carácter de órgano permanente de la misma.

Recogido el número de firmas exigido, se inicia la tramitación parlamentaria de conformidad con lo previsto en el Reglamento de las Juntas Generales, trámite en el que la presente Norma Foral posibilita que la Comisión Promotora designe a una persona para que en su representación realice la defensa de la proposición de norma foral. Se prevé asimismo el mantenimiento de la iniciativa en caso de disolución de las Juntas Generales sin que en ningún caso sea necesario presentar una nueva certificación acreditativa de haberse reunido el mínimo de firmas exigido.

Por último, se establece una compensación para los gastos realizados, siempre y cuando se alcance el número de firmas exigido para que prospere la tramitación, previéndose las cautelas necesarias para que la Diputación Foral incluya las obligaciones de gasto en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del siguiente ejercicio. Se pretende con ello evitar que resulte oneroso el ejercicio de una forma de participación en la vida pública por las ciudadanas y ciudadanos directamente. Se establece por último que la Diputación Foral deberá dictar las instrucciones pertinentes para la utilización de la firma electrónica.

Artículo 1. Objeto.

La iniciativa normativa popular prevista en el apartado 3 del número 1 del artículo 116 del Reglamento de las Juntas Generales de Gipuzkoa aprobado el 2 de julio de 2006, podrá ser ejercida por las ciudadanas y ciudadanos guipuzcoanos mayores de edad que se encuentren inscritos en el Censo Electoral, de acuerdo con lo previsto en esta Norma Foral.

Artículo 2. Materias excluidas de la iniciativa normativa popular.

Están excluidas de la iniciativa normativa popular, las siguientes materias:

- a) Aquéllas sobre las que el Territorio Histórico de Gipuzkoa carezca de competencia normativa.
- b) Las de naturaleza tributaria.
- c) Las correspondientes a la elaboración, examen, enmienda y aprobación de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico.

- d) Lurralde edo alorreko planak.
- e) Udal erakundeen tutoretza finantzarioaren araubide orokorra, Kontzertu Ekonomikoaren Legeko 48. artikulua bosgarren atalean ezarritakoari jarraituz.
- f) Lurralde Historikoaren Antolaketa eta Banaketa Politiko Administratiboa.
- g) Lurralde Historikoen Legeko 7. artikuluko a) ataleko 1. eta 2. puntuetan aurreikusten den Hauteskunde Araudia.
- h) Lurralde Historikoak Eusko Legebiltzarrean duen arau ekimena.
- i) Herritarren arau ekimena arautzea.
- j) Onartu edo aldatzeko quorum berezi bat eskatzen duten foru arauetan araututako gai guztiak.

3. artikulua. Herritarren arau ekimenaren beharkizunak.

1. Herritarren arau ekimena gauzatzeko foru arau baten proposamena aurkeztu behar da Batzar Nagusietako Mahaian. Foru arau horrek artikulatua eta arrazoitua izan behar du, eta gutxienez 10.000 hautesleren sinadura behar du, foru arau honek ezartzen duen moduan egiaztatuak.

2. Aurkezpen idatziak ondoko hauek eduki behar ditu:

a) Foru arauaren proposamenaren testu artikulatua, zioen azalpena eta, horrekin batera, foru arau horri buruzko iritzia emateko behar diren aurrekariak barne dituen, bai eta sinatzaileen ustez proposamena bideratzea zer arrazoik aholkatzen duten azaltzen duena ere.

b) Ekimenaren Batzorde Sustatzailea osatzen duten kideen izenak, horien guztien datu pertsonalak, batzordearen eraiketaren notario akta eta jakinerazpenetarako izango duen egoitza erantsiz.

4. artikulua. Prozeduraren hasiera.

Prozedura aurreko artikuluan eskatutako agiriak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaia erregistroan aurkezten direnean hasiko da.

Ekimena Batzar Nagusien bilera alditik kanpo aurkezten bada, agiriak aurkeztu eta ondorengo bilera aldiko lehen egunetik aurrera hasiko dira epeak kontatzen.

5. artikulua. Ekimena onartzeko tramitea.

Batzar Nagusietako Mahaiari dagokio tramitera onartu edo ez onartzea herritarrek aurkeztutako ekimena, ondoko prozedura honi jarraituz:

1. Batzar Nagusietako Mahaiak bidali zaizkion agiriak aztertuko ditu, baina osorik dagoen edo ez, edota omisiorik baduen ikusteko soilik, horretarako 10 eguneko epea hartuz. Epe horretan ez badu Mahaiak erantzuten, ulertuko da dokumentazioa osatuta dagoela eta ez duela omisiorik.

2. Mahiak dokumentazioa ez dagoela osatuta ikusten badu, Batzorde Sustatzaileari berehala eskatuko dio akatsa hila-beteko epe luzaezinean zuzentzeko; epe hori igarota, bestelako tramiterik gabe, batzorde horri agiriak itzultzeko aginduko du.

3. Behin dokumentu guztiak egiaztatu ondoren, Mahaiak onartu edo ez erabakiko du, 1. atalean ezarritako epeari erantsita, guztira, hogeita hamar egun gaudituko ez dituen epe baten barruan.

- d) Los Planes Territoriales o Sectoriales.
- e) El régimen general de tutela financiera de las Entidades Locales en los términos del apartado quinto del artículo 48 de la Ley del Concierto Económico.
- f) La Organización y División Política Administrativa del Territorio Histórico.
- g) El Régimen Electoral previsto en el artículo 7.a), 1 y 2 de la Ley de Territorios Históricos.
- h) La iniciativa legislativa del Territorio Histórico ante el Parlamento Vasco.
- i) La regulación de la iniciativa de la normativa popular.
- j) Todas aquellas materias reguladas en normas forales que requieran un quórum especial para su aprobación o modificación.

Artículo 3. Requisitos de la iniciativa normativa popular.

1. La iniciativa normativa popular se ejercerá a través de la presentación ante la Mesa de las Juntas Generales, de una proposición de norma foral, articulada y motivada, suscrita por las firmas de, al menos, 10.000 electores autenticadas en la forma que determina la presente Norma Foral.

2. El escrito de presentación deberá contener:

a) El texto articulado de la proposición de norma foral, precedido de una exposición de motivos y acompañado de los antecedentes necesarios para pronunciarse sobre la misma y las razones que, a juicio de los firmantes, aconsejan la tramitación de la proposición.

b) La relación de los miembros que componen la Comisión Promotora de la iniciativa con expresión de los datos personales de todos ellos, del acta notarial de su constitución, así como del domicilio de la misma que se designe a efectos de notificaciones.

Artículo 4. Iniciación del procedimiento.

El procedimiento se iniciará con la presentación ante la Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa, a través del Registro de las mismas, de la documentación exigida en el artículo anterior.

Si la iniciativa se presentase fuera de período de sesiones de las Juntas Generales, los plazos empezarán a computarse a partir del día primero del período siguiente a la presentación de la documentación.

Artículo 5. Trámite de admisión de la iniciativa.

Corresponde a la Mesa de las Juntas Generales rechazar o admitir a trámite las iniciativas presentadas por las ciudadanas y ciudadanos, con arreglo al siguiente procedimiento:

1. La Mesa de las Juntas Generales examinará la documentación remitida a los solos efectos de estimar si la misma está completa, o si adolece de alguna omisión, para lo cual dispone del plazo de 10 días. Si en ese plazo la Mesa no contesta, se entiende que la documentación está completa y no adolece de ninguna omisión.

2. Si la Mesa observase que la documentación recibida no está completa, requerirá de forma inmediata a la Comisión Promotora para que subsane la deficiencia en el plazo improrrogable de un mes, transcurrido el cual sin verificarse, ordenará sin otro trámite que se reintegre la documentación a la citada Comisión.

3. Una vez verificados los requisitos documentales, la Mesa decidirá sobre su admisibilidad en un plazo que, sumado al establecido en el apartado 1, no podrá superar, en conjunto, los treinta días.

4. Foru arau proposamena ez onartzeko arrazoiak ondoko hauek izango dira:

- a) 2. artikuluan aipatutako gairen bat izatea.
- b) 3. artikuluan aipatutako beharkizunak ez bete izana edo, bestela, akatsa zuzendu ez izana.
- c) Foru arau proposamenaren testua gai arras desberdinen eta homogeneotasun gabekoen ingurukoa izatea.
- d) Herritarren arau ekimenaren gai berdina duen foru arau baten proiektua edo proposamena egotea Batzar Nagusietan eta, ekimen hori aurkezten denean, zuzenketa tramitean edo tramite aurreratua gozatu egotea.
- e) Batzar Nagusietan, legealdi horretan, herritarrek aurkeztutako eduki bereko edo funtsean antzeko beste arau ekimen baten erreproduktzioa izatea.

6. artikulua. *Publizitatea.*

Batzar Nagusietako organo eskudunen erabakiak, baita aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz gerta daitezkeen ere, Batzorde Sustatzaileari jakinaraziko zaizkio eta Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira.

7. artikulua. *Auzitegi Konstituzionalean babesa eskatzea.*

1. Batzar Nagusietako Mahaiak arau ekimena ez onartzea erabakitzen badu, Batzorde Sustatzaileak babes errekurtsioa jar dezake Auzitegi Konstituzionalean, horretarako dagoen legeriari jarraituz.

2. Auzitegi horrek erabakitzen badu foru arau proposamena ez dela 5. artikuluko 4. atalean aurreikusitako ez onartzeko kausaren baten pean erortzen, prozedurak aurrera egingo du.

3. Auzitegiak erabakitzen badu irregularitasuna foru arau proposamenaren agindu jakin batzuei dagokiela, Batzar Nagusietako Mahaiak sustatzaileei jakinaraziko die 30 eguneko epean esan dezatela ea ekimena atzera bota nahi duten edota, egin beharreko aldaketak egin ondoren, hari eutsi nahi dioten.

8. artikulua. *Sinadurak biltzeko prozedura eta agiriak.*

1. Foru arau proposamena onartzen denean, Batzar Nagusietako Mahaiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Mahaiari jakinaraziko dio, sinadurak behar bezala jasotzen direla bermatu eta kontrola dezan.

2. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak jakinaraziko dio Batzorde Sustatzaileari foru arau proposamena onartu dela, horretarako behar diren sinadurak biltzitan.

3. Jakinarazpena jaso ondoren, Batzorde Sustatzaileak sinadurak jasotzeko behar diren agiriak aurkeztuko dizkio Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari. Agiri horietan foru arauari buruzko proposamenaren testu osoak azaldu behar du.

Agiriek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza koofizialetan egon behar dute idatzita.

4. Proposamenaren testuak agiri bakoitzaren hiru lehen orrialde baino gehiago behar baditu, beste agiri batzuk hartu behar dira eta ondoren sinadura biltzeko direnei erantsi, ezin banantzeko moduan, zigilatuz eta zenbakituz, hurrengo puntuan dioenari jarraiki.

4. Serán causas de inadmisibilidad de la proposición de norma foral:

- a) Que tenga por objeto alguno de las materias señaladas en el artículo 2.
- b) Que no se hayan cumplido los requisitos del artículo 3, o en su caso, no se hayan subsanado los defectos.
- c) El hecho de que el texto de la proposición de norma foral verse sobre materias manifiestamente distintas y carentes de homogeneidad entre sí.
- d) La previa existencia en las Juntas Generales de un proyecto o proposición de norma foral que verse sobre el mismo objeto de la iniciativa normativa popular y que esté, cuando ésta se presenta, en el trámite de enmiendas u otro más avanzado.
- e) El hecho de que sea reproducción de otra iniciativa normativa popular de contenido igual o substancialmente equivalente presentada durante el mandato en curso en las Juntas Generales.

Artículo 6. Publicidad.

Las decisiones de los órganos competentes de las Juntas Generales, así como todas las incidencias que resulten de lo previsto en el artículo anterior, serán notificadas a la Comisión Promotora y publicadas en el Boletín Oficial de las Juntas Generales.

Artículo 7. Amparo ante el Tribunal Constitucional.

1. Frente a los acuerdos de inadmisibilidad dictados por la Mesa de las Juntas Generales la Comisión Promotora podrá, de acuerdo con la legislación aplicable, interponer recurso de amparo ante el Tribunal Constitucional.

2. Si el Tribunal decidiera que la proposición de norma foral no incurre en alguna de las causas de inadmisión previstas en el apartado 4 del artículo 5, el procedimiento seguirá su curso.

3. Si el Tribunal decidiera que la irregularidad afecta a determinados preceptos de la proposición de norma foral, la Mesa de las Juntas Generales lo comunicará a los promotores, a fin de que éstos manifiesten, en el plazo de 30 días si desean retirar la iniciativa o mantenerla, una vez que hayan efectuado las modificaciones correspondientes.

Artículo 8. Procedimiento y pliegos para la recogida de firmas.

1. Admitida la proposición de norma foral, la Mesa de las Juntas Generales lo notificará a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a fin de que ésta garantice y controle la corrección de la recogida de firmas.

2. La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco notificará a la Comisión Promotora la admisión de la proposición de norma foral, al objeto de que proceda a la recogida de las firmas requeridas.

3. Una vez recibida la notificación, la Comisión Promotora presentará a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco los pliegos necesarios para la recogida de firmas. Dichos pliegos deberán reproducir íntegramente el texto de la proposición de norma foral.

Los pliegos deberán estar escritos en cualquiera de las dos lenguas cooficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4. Si el texto de la proposición superase en extensión las tres primeras caras de cada pliego, se acompañará en pliegos aparte, que se unirán al destinado a recoger las firmas, de modo que no puedan ser separados, sellándose y numerándose, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado siguiente.

5. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzardeak aurkeztutako agiriei zigilua jarri eta zenbakia emango die eta Batzarde Sustatzaileari itzuliko dizkio ondoren, aurkeztu eta 72 orduko epean.

6. Sinatzaile bakoitza Hauteskunde Erroldan dagoela ahalik eta errazen egiaztatzeko, agiri bakoitza udalerrri bereko hautesleek sinatu behar dute.

7. Sinadura elektronikoren bitartez ere sina daiteke, horri buruzko legeak dioenarekin bat.

9. artikulua. Sinadurak benetakotzat egiaztatzea.

1. Pertsona bakoitzaren sinadurarekin batera, honakoak agertu behar dute: Pertsona horren izen-deiturak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta hauteskunde zerrendan izena zein herritan eman duen hango udalerrria. Sinadura bakoitzaren alboan gune zuri bat utzi behar da pertsona hori hautesle zerrendan dagoela zertifikatzeko.

2. Sinadura benetakoa dela notario batek, epaitegietako idazkari batek, edota sinatzaileak izena eman duen herriko udaletxeko idazkariak egiaztatu behar du.

3. Benetakoa dela egiaztatzeak data adierazi behar du eta kolektiboa izan daiteke, agiriz agirikoa. Horrela izanez gero, dataren ondoan adierazi behar da zenbat sinadura dauden agirian.

10. artikulua. Sinadurak biltzeko epea.

1. Sinadurak biltzeko prozedura amaituko da bildutako sinaduren agiriak Batzar Nagusietako Mahaiari aurkezten zaizkionean, ekimena onartu dela jakinarazten den egunetik hasita sei hilabeteko epearen barruan. Epe hori hilabete batez luza daiteke, ezinbesteko arrazoiren bat eman eta horrelakotzat hartzen duenean Batzar Nagusietako Mahaiak. Bildu diren sinadurak eman gabe epea agortzen bada, ekimena bukatuta geratuko da.

2. Batzar Nagusietako Mahaiak bi eguneko epearen barruan emango dizkio agiriak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzardeari, honek zertifika ditzan eta, ondoren, sinadura kopuruaren hasierako kontaketa egin, hilabeteko gehieneko epean.

3. Batzarde Sustatzaileak nahi duen guztietan eska diezaiok Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzardeari jasotako sinadura kopuruari buruzko informazioa.

11. artikulua. Sinadurak egiaztatu eta zenbatzea.

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzardeari agiriak bidali ondoren, hark sinadurak behin betiko egiaztatu eta zenbatuko ditu.

2. Foru arau honetan eskatzen direnak betetzen ez dituzten sinadurak baliogabekotzat joko dira eta ez dira zenbatuko.

3. Foru arau proposamena behar bezala aurkezteko behar-kizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzardeak baliozko sinaduren kopurua frogatzen duen ziurtagiria bidaliko die Batzar Nagusiei, eta dauzkan sinadura agiriak deuseztatuko ditu.

12. artikulua. Tramitazio parlamentarioa.

1. Eskatzen den sinadura kopurua bildu dela frogatzen duen ziurtagiria jaso ondoren, Batzar Nagusietako Mahaiak argitara daitezela aginduko du eta, aintzat hartzeko egin behar diren gainerako tramiteei dagokienez, foru arau proposamenerako Batzar Nagusien Arautegian aurreikusitakoaren arabera jokatu du.

5. La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco sellará y numerará los pliegos presentados y los devolverá de esta manera a la Comisión Promotora dentro de las 72 horas siguientes a su presentación.

6. A fin de facilitar la certificación de la inclusión en el Censo Electoral de cada firmante, cada pliego deberá ser firmado por electores inscritos en un mismo municipio.

7. Las firmas se podrán recoger también como firma electrónica conforme a lo que establezca la legislación correspondiente.

Artículo 9. Autenticación de las firmas.

1. Junto a la firma de cada persona proponente deberá figurar su nombre y dos apellidos, el número del documento nacional de identidad, su domicilio y el municipio en cuyas listas electorales se halle inscrito. Al lado de cada firma se reservará un espacio para la certificación de la inclusión de la persona firmante en el censo electoral.

2. La firma deberá ser autenticada por una notaria o un notario, por una secretaria o un secretario judicial o por la secretaria o el secretario del municipio en cuyo censo se halle inscrito el firmante.

3. La autenticación deberá indicar la fecha y podrá ser colectiva, pliego por pliego. En este caso, junto a la fecha deberá consignarse el número de firmas contenidas en el pliego.

Artículo 10. Plazo de recogida de firmas.

1. El procedimiento de recogida de firmas deberá finalizar con la entrega ante la Mesa de las Juntas Generales, de los pliegos con las firmas recogidas, en el plazo de seis meses a partir de la fecha de notificación de la admisión. Este plazo podrá ser prorrogado por un mes cuando concurra una causa mayor apreciada por la Mesa de las Juntas Generales. Agotado el plazo sin que se haya hecho entrega de las firmas recogidas, caducará la iniciativa.

2. La Mesa de las Juntas Generales remitirá los pliegos en el plazo de dos días a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para que ésta proceda a la certificación de la inclusión en el Censo Electoral de cada uno de los firmantes, y al posterior recuento inicial del número de firmas, en el plazo máximo de un mes.

3. La Comisión Promotora podrá recabar en cualquier momento de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco la información que estime pertinente, respecto del número de firmas recogidas.

Artículo 11. Comprobación y recuento de firmas.

1. Una vez remitidos los pliegos a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ésta procederá a su comprobación y recuento definitivos.

2. Las firmas que no reúnan los requisitos exigidos en esta Norma Foral, se declaran no válidas y no serán computadas.

3. Comprobado el cumplimiento de los requisitos exigidos para la válida presentación de la proposición de norma foral, la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco elevará a las Juntas Generales certificación acreditativa del número de firmas válidas, y procederá a destruir los pliegos de firmas que obren en su poder.

Artículo 12. Tramitación parlamentaria.

1. Recibida la certificación que acredite haberse reunido el número de firmas exigido, la Mesa de las Juntas Generales ordenará su publicación actuándose, en cuanto a los demás trámites conducentes a la toma en consideración, de conformidad con lo previsto en el Reglamento de las Juntas Generales para las proposiciones de norma foral.

2. Batzar Nagusien Batzarrean aintzat hartzeko tramitean foru arauaren proposamena defendatzeko, Batzorde Sustatzaileak ondoko hauek egin ditzake:

a) Pertsona bat izendatu Batzorde Sustatzailearen ordezkari, foru arauaren proposamenaren defentsa egin dezan.

b) Ahaldun-batzarkide bati edo batzuei eskatu foru arauaren proposamenaren defentsa egiteko.

Batzar Nagusietako kideetako inork ez badu defenditzea onartzen, Batzar Nagusietako Mahaiko kide batek defendatu behar du, Mahaiak izendatuta.

13. artikulua. Ekimenari eustea, Batzar Nagusiak desegiten direnean.

Batzar Nagusiak desegiten direnean tramitean dagoen herritarren arau ekimena tramitatzen jarraitu behar da ondorengo legegaldian ere, nahiz eta atzera eraman ahal izango den Batzar Nagusietako Mahaiak erabakitzen duen tramitera, ez delarik inoiz ere aurkeztu behar izango eskatutako gutxieneko sinadurak bildu direla frogatuko duen ziurtagiririk, horrela eskatzen badu Batzorde Sustatzaileak.

14. artikulua. Gastuen ordaina.

Foru arau honetako 12.1 artikulua aipatzen duen ziurtagiria Batzar Nagusiek jaso ondoren, Foru Aldundiak foru arauaren proposamena zabaltzen eta sinadurak biltzen egindako eta behar bezala zurututako gastuak ordainduko dizkio Batzorde Sustatzaileari Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen kargura, 9.000 euroko muga jarritz. Zenbateko hori aldi-aldian berrikusi egingo du Batzar Nagusietako gobernurako organoak, Kontsumo Prezioen Indizeak izan dituen aldaketek begiratu.

Xedapen gehigarriak.

Lehen xedapen gehigarria:

Tramitazio parlamentariara iritsi diren herritarren arau ekimenen ordain ekonomikoa hurrengo ekitaldiko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan gastu obligazio gisa sartu behar ditu Foru Aldundiak.

Bigarren xedapen gehigarria:

Herritarren arau ekimena aurkeztean sinadura elektronikoa erazteko, jarraibide egokiak eman behar ditu Foru Aldundiak, bitarteko teleinformatiko hori eraginkorra eta segurua izan dadin.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan ezarritakoaren aurka doazen arau guztiak eta, bereziki, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Herritarren Ekimena arautzen duen 1986ko uztailaren 21eko 9/1986 Foru Araua.

Amaierako xedapenak.

Lehena:

Baimena ematen zaio Diputatuen Kontseiluari foru arau hau gauzatu eta betetzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

Bigarrena:

Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Para la defensa de la proposición de norma foral en el trámite de toma en consideración ante el Pleno de las Juntas Generales, la Comisión Promotora podrá:

a) Designar a una persona como representante de la Comisión Promotora para que realice la defensa de la proposición de norma foral.

b) Solicitar a uno o varios miembros de las Juntas Generales la defensa de la proposición de norma foral.

En el caso de que ningún miembro de las Juntas Generales aceptase la defensa, ésta deberá ser realizada por un miembro de la Mesa de las Juntas Generales designado por la misma.

Artículo 13. Mantenimiento de la iniciativa en caso de disolución de las Juntas Generales.

La iniciativa normativa popular que estuviese en tramitación en el momento de disolverse las Juntas Generales seguirá su tramitación en la nueva legislatura, pero podrá retrotraerse al trámite que decida la Mesa de las Juntas Generales, sin que sea preciso en ningún caso presentar nueva certificación acreditativa de haberse reunido el mínimo de firmas exigido, si así lo solicita la Comisión Promotora.

Artículo 14. Indemnización por gastos.

Una vez recibida por las Juntas Generales la certificación a que hace referencia al artículo 12.1 de esta Norma Foral, la Diputación Foral resarcirá a la Comisión Promotora, con cargo a los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de los gastos debidamente justificados, realizados en la difusión de la proposición de norma foral y la recogida de firmas con un límite máximo de 9.000 euros. Esta cantidad se revisará periódicamente por los órganos de gobierno de las Juntas Generales, con arreglo a las variaciones del Índice de Precios al Consumo.

Disposiciones adicionales

Disposición adicional primera:

La Diputación Foral deberá incluir como obligación de gasto en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del siguiente ejercicio la compensación económica de las iniciativas normativas populares que hayan alcanzado su tramitación parlamentaria.

Disposición adicional segunda:

La Diputación Foral, para facilitar la firma electrónica en la presentación de la iniciativa normativa popular, deberá dictar las instrucciones pertinentes para garantizar la eficacia y seguridad de este medio teleinformático.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas cuantas normas se opongan a lo establecido en la presente norma foral y en particular la «Norma Foral 9/1986, de 21 de julio, reguladora de la Iniciativa Popular ante las Juntas Generales de Gipuzkoa».

Disposiciones finales.

Primera:

Se autoriza al Consejo de Diputados para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de esta Norma Foral.

Segunda:

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.